



Porrontxotako danborrada ez da San Sebastian eguneko bezain serioa, bistan da. **OLATZ BALDA**

# Dena prest Porrontxo leherketarako

Astelehenetik igandera, egitarau zabala antolatu dute Porrontxoetarako. Baina, jaiaren leherketa ofiziala ostegunean izango da, dantzaz eta musikaz betez, hiru egun horietan, Egiako kaleak.

✎ Xalba Ramirez Cruz

**E**gia dela bizipozaren herria eta Egian umore ona edo non. Egun gutxi falta dira Porrontxoak hasteko, eta auzoan, jada, sumatzen da badatorrela festa. Astelehenean hasiko da egitaraua, baina festa ostegunean lehertuko da, txupinaren jaurtiketarekin.

Jai batzordeko Izaro Biainek argi du osteguna dela auzotarrentzat «egun handiena». Kuadrillen jaitzierak ematen dio jaiari hasiera, eta mozorro eta karrozekin —askotxo esatea ez ote

den hori—, Egiako kale nagusiak igarotzen dira txarangaz eta umore onez blai. Ostegunean, gainera, txupinaren jaurtiketa omenaldi bihurtzen da, auzoko eragile batek jaurtitzen baitu. Aurtan, Gordegia elkarteak izango du ardura potolo hori.

Gordegia Egiako Artxibategi Grafikoa izateko helburua duen egitasmo herrikoia da, auzoari buruzko irudiak batu, dokumentatu, segurtasunez gorde eta auzokide guztien eskura jarri nahi dituen. Teila Fabrikak hauspotu

eta babestuta, gai honekiko sentsibiltatea duten hainbat auzotarren nahi eta ekimenez sortutako proiektu hau irabazi asmorik gabeko elkarte gisa gorpuztu zen 2019an, eta ordutik ehunka eta ehunka argazki jaso eta digitalizatu dituzte. 2024an, Interneteko Argia Saria jaso zuen egitasmoak.

## Protokolo berria

Jai batzordeko Biainek azaldu duenez, urteroko egitarau antzekoa izango da aurtan ere. Funtzionatzen badu, zertarako aldatu, ezta? Egitarauan, beraz, berritasun nabarmenik ez dagoen arren, Biainek nabarmendu du, lehen aldiz, eraso arrazisten kontrako protokolo bat izango dela martxan jaietan. Hiritarren Harre Sareak eta Kuadrila Mundialak elkarrekin antolatuta, eraso arrazisten aurrean erantzuna eta laguntza emateko asmoz sortu da ekimena. Azken urte eta hilabeteetan, jai giroan izandako egoerei aurre egitea du helburu. Horretaz gain, Egiako emakumeen protokolo feminista ere izango da, urteroko lege.

Bestelako aldaketa bat nabarmendu du Biainek. Ostegunean ospatzen den

karaokea Plaza Berrin izan ohi den arren, aurten Plaza Haundira igaroko da berriro ere. Horrek esan nahi du, noski, esposizio handiagoa izango dela... Ea jendea berdin animatzen den!

### Adin guztietarako jarduerak

Jarduerak, bestela, urtero bezala, askotarikoak izango dira, eta publiko guztientzat. Haurrek dute egitarauaren parte handi bat (guraso elkar-teari eta bestelakoei esker), baina helduek ere haurren pare disfrutatu dute.

### Aurten, lehenengo aldiz, eraso arrazisten kontrako protokoloa egongo da jaietan, eraso sexisten protokoloarekin batera

Ez da alferrikakoa, horretarako, jai batzordeak egiten duen lana. «Urte hasieran bildu ohi gara, eta, ondoren, kuadrillen batzarrean partekatzen da egitaraua eta egitekoak», azaldu du Biainek. Kontuan edukitzeko moduko datua ere eman du: 51 kuadrilla dira Porrontxoetan modu aktiboan parte hartzen duten kuadrillak. «Hamar bat lagun, bakoitzean... 500 lagun inguru daude, modu batean edo bestean, Porrontxoan antolakuntzan!». Ez da makala, ez, auzo batek hartzen duen tamaina. ●



## ASTELEHENA 15

### Motorrak berotzeko eguna!

#### 14:00

Zuzeneko musika Imperial mariatxiak bazkal orduan (Ametzagafña 51, Doña Chepina).

#### 16:00

Apar festa eta jolasak Plaza Haundin.

#### 17:00

Txirrista erraldoia haurrentzat Plaza Haundi ondoko aldan.

#### 18:00-20:00

Azoka txikia Plaza Berrin.

## ASTEARTEA 16

### Kalean gora! Kalean behera!

#### 17:00

Patinete eta bizikleta festa (0-8 urte) eta aurpegi margotzea Plaza Haundin.

Haur jolasak (0-3 urte) Plaza Haundin, Egihaurgunearen eskutik.

#### 18:00

Talo tailerra Plaza Haundin.

#### 19:00

Erakusketa *Porrontxo jaiak, laster mende erdi!* Teila Fabrikan, Gordegiaren eskutik.



# Gora Porrontxo jaiak!

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - 'D' eredu

Konkorrenea, 7 - Ametzagafña, 40 - Tel.: 943-89 94 14

012358aa@hezkuntza.net - www.aitorikastola.hezkuntza.net

# Que pelos!!!

## GORA PORRONTXOAK!

## ileapaindegi mistoa

Karmengo Ama, 12 - DONOSTIA  
www.quepelos.com

Tel.: 943-32 27 76  
quepelos@hotmail.com



## ASTEAZKENA 17

### Koltour Egian barrena!

#### 17:00

Jolasak (3-6 urte) Benita Asas plazan, Egiahaurgunearen eskutik.

Jolasak (+6 urte) Benita Asas plazan, Antxeta Ttan Ttakunen eskutik.

#### 18:00

Zurito kalejira trikitilariak alaituta, Etxaben hasita.

#### 19:00

III. Kata poetikoa 'Bilintx' bertsolariaren eta Porrontxoaren omenez. Ardo dastaketa eta irakurraldia Koldo Izagirrerekin Teila Fabrikan.

#### 20:00

JAIETAN ERASORIK EZ! argazkia Plaza Haundin. Zatoz blusa jantzita!

## OSTEGUNA 18

### Kalean gora! Kalean behera!

#### 14:00

Zuzeneko musika Velarde taldearekin bazkal orduan (Deba ibaia 1, Doña Chepina).

#### 17:00

Aldakoneako Egoitza alaituko dute Eneko eta Oritz trikitilariak.

Kalejira Porrontxa, Porrontxo eta buruhandiekin Iruresorotik gora Joselontxos txarangarekin batera.

#### 17:30

Haurren txupina 'Iritsi dira Porrontxo jaiak' kanta abestuz, Karmengo ama goialdean.

#### 17:35

Haurren jaitsiera, Porrontxo eta Porrontxarekin batera, Joselontxos txarangak alaituta.

#### 17:55

Holi festa Plaza Haundin, Ongi Etorri Eskolararen eskutik.

#### 18:00

Mikeltxi DJ-arekin dantzaldia Plaza Haundin (Donostia Kultura).

#### 20:00

Pregoia eta txupinazoa Txondorra atzeko plazatik. Aurtengo pregoilaria: Gordegia.

#### 20:05

Kuadrillen jaitsiera. Azkena, ipurdi gizona! Porrontxa, Porrontxo, Egia Sound System eta Joselontxos txarangarekin batera.

#### 22:00

Karaoke herrikoia Plaza Haundin.

#### 23:00

Guatkeka 80/90 hamarkadako musikaz gozatzeko Tejerian (Agreda eta Ilargi tabernak).

**MariaReinaEskola**  
Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.  
Gora Porrontxo jaiak!

Ametzagaña 58 • Egia • 20012 • Donostia  
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!**

**zumy**  
• ETXETRESNA ELEKTRIKOAK  
• TB  
• SUKALDEKO ALTZARIAK

Karmengo Andre Maria, 21  
943-27 88 28 - 943-27 50 38  
www.zumy.com • info@zumy.com

00:00

Kuadrillen jolasak Plaza Haundin.

00:30

Kuadri DJ-a Plaza Haundin.

## OSTIRALA 19

**Haur, gazte ta beteranoen eguna!**

08:00

Diana Kzazpi dultzaineroekin auzoan zehar.

09:30

Kalejira musikatua Porrontxa eta Porrontxo erraldoekin Ametzagaña 40tik Tejeriara (Aitor Ikastola).

10:00

Entzierrikoak adinen arabera, Tejerian (Aitor Ikastola).

11:00

Txanpon Baten Truke ikuskizuna (4-10 urte) Plaza Haundin (Donostia Kultura).

Euskal karaokea eta punteria jolasak (+8 urte) Plaza Berrin (Aitor Ikastola).

14:00

Gazte bertso bazkaria Plaza Berriko karpan (Egiako Gazte Asanblada).

Zuzeneko musika Velarde taldearekin bazkal garaiari (Deba ibaia 1, Doña Chepina).

16:30

Buruhandiak Benita Asas plazan.



20:00

Pregoia eta txupinazoa Txondorra atzeko plazatik. Aurtengo pregoilaria: Gordegia.

17:00

Gazte jolasak Plaza Haundin (Egiako Gazte Asanblada).

Egi Sound System dantzaldi ibiltaria, Porrontxa, Porrontxo eta buruhandiek Benita Asas plazatik Tabakalerara.

17:30

Haurren jolasgunea: puzgarriak, aurpegi margotzea eta maskuri eskulana Nestor Basterretxea plazan (Haurtxokoa).

18:00

Gazteentzako jolasak eta tailerrak txapa eta imanekin Nestor Basterretxea plazan (Gaztelekua).

Bote txapelketa Plaza Berrin (Kaktus taberna).

18:30

Elektrotxaranga auzoan zehar (Egiako Gazte Asanblada).

Lokufest 2 Tejerian (Garraxi taberna).

Zumba Mainerren eskutik Tejeria (Agreda eta Ilargi tabernak).

19:00

SalDSa Badago dantza saioa Plaza Gorriin.

Zuzeneko musika Quitapenas mariatxiak (Deba ibaia 1, Doña Chepina).

20:00

Kontzertu sorpresa La Tabernan.



Javier Sun bakarlariaren kontzertua, Ametzagaña 66.aren ondoko plazatxoan (Anden taberna).

Haurren afari-merienda frontoi ondoan. Txartelak Kaktus tabernan salgai osteguna 18 arte.

### 20:30

Familia dantzaldia Plaza Haundin.

### 21:00

Beteranoen afaria Tejeria kalean.

### 21:30

Zezensuzkoa Tejeria kalean.

### 22:00

Kontzertuak: Zarratak eta Auzo DJ-ak Plaza Berriko karpan.

### 22:30

Kontzertua Mostaza Karizia taldearekin Plaza Haundin.

### 23:00

Beteranoen guatekea Tejerian (Agreda eta Ilargi taberna).

Lasarte Town DJ-ak Ametzagaña 66.aren ondoko plazatxoan (Anden taberna).

### 00:00

Kontzertua Bengo taldearekin, Plaza Haundin.

### 01:00-03:00

Happy Music DJ-a patxanga & bailoteo (Taupada taberna).

### 01:30

Kontzertua Malakias MX3 taldearekin Plaza Haundin.

### 03:00 (itxi arte)

Jonfer DJ-a house & tribal, Taupada tabernan.

## LARUNBATA 20

### Elkartasun eguna!

### 09:00

Kzazpi txistularien diana auzoan zehar.

### 10:30

Gazte eta helduen pala finalak frontoian trikitilariak alaituta (Egialai).

### 11:00

Flor Fernandez mariatxiak, Plaza Haundin.

### 11:30

Zapotxinekin Zeinuka ekimena, Plaza Berrin (Egia Zeinuka).

### 12:00

Txokolate jatea, Plaza Berrin.

Kantu jira auzoan zehar Kata tabernatik abiatuta.

Porrontxoetako V. danborrada Plaza Berrin hasita. Bukaera, 14:30ean Plaza Haundin.

### 12:30

Dantza-potea Plaza Berritik abiatuta (Trebeska dantza taldea).

Dantza-kale-potea kuadrilla beteranoen eskutik, auzoan zehar.

### 14:00

Zuzeneko musika Velarde taldearekin bazkal garaian (Deba ibaia 1, Doña Chepina).

### 14:30

Denak Etxera brindisa, argazkia eta herri bazkaria. Txartelak salgai: Koskorrio, Kata, Kaktus eta Ilargin.

### 16:00

Egia Sound System.

### 17:00

Kalejira Porrontxa, Porrontxo eta buruhandiak, Kaña2kaña trikitilariak lagunduta, auzoan zehar.

Piñata jaia (Ametzagaña 51, Doña Chepina).

### 18:00

Bingo herrikoia Tejerian (Agreda eta Ilargi tabernak).

Kirol ikuskizuna Mundaizen (Zentro sozialista).

### 19:00

Velarde txaranga Ametzagaña kalean zehar (Doña Chepina).

### 20:00

Zuzeneko musika Jairen eskutik eta margaritak doan (Ametzagaña 26, Doña Chepina).

Kontzertua: Dosis Gray (La Taberna).



**IPURU S. L.  
ERAIKUNTZAK**

**Ondo pasa jaietan!**

Mundaiz bidea, 10, 2. solairua - 24. bulegoa  
20012 DONOSTIA - Tel.: 943-42 41 21 - [www.ipuru.com](http://www.ipuru.com)

Tel.: 943-27 97 96  
Bazkariak

**KATA**  
egia

**Gora Porrontxo jaiak!**





### 21:00

Zezensuzkoa Tejeria kalean.

Kuadrillen afaria Tejeria kalean.

### 23:00

Erromeria Itzal taldearekin, Plaza Haundin.

Kontzertua Rock Kam Broom taldearekin, Plaza Berriko karpan.

### 23:30

Niko DJ-a Tejerian (Agreda eta Ilargi tabernak).

### 01:00-03:00

Happy Music DJ-a patxanga eta bailoteoa (Taupada taberna).

### 01:30

Siwanaba DJ-a, Plaza Berriko karpan.

### 02:00

La Fulana DJ-a, Plaza Haundin.

### 03:00

Jonfer DJ-a house eta tribal (Taupada taberna).

## IGANDEA 21

### Euskal jaia!

### 07:00

Kalejira, Porrontxa, Porrontxo eta Ilargi txarangarekin. Kriston martxa dabil!

### 10:00

Zumba Maiderren eskutik, Plaza Haundin.

### 10:30

Haur eta helduen esku pilota finalak frontoian, trikitilariak lagunduta (Egialai).

### 11:00

Kzazpi txistulariekin kalejira auzoan zehar.

### 12:00

Revuelta anaiak Tejerian (Agreda eta Ilargi tabernak).  
Sagardo dastaketa trikitilariak alaituta, Plaza Haundin.



Mundua guk sortzen dugu,  
ateraiozu alderik onena

ateri  
koop

373 ABOKATUAK

aholkukoop

koop57 euskal herria

Ametzagaina, 17, behea, Egia 20012 Donostia · 943005680 · ateri@aholku.eus



**13:00**

*Inproak* antzezlan. Sarrera doan. Bi saio egongo dira (La Farandula).

**14:30**

Herri bazkaria Plaza Haundin (Donosti Gain, Ur Zaleak eta Arrano elkarteak lagunduta).

**17:00**

Kontzertua Atotxako Big Combo taldearekin, Plaza Berriko karpan (Musika eta Dantza Eskola).

Herri kirolak Plaza Haundin.

**18:00**

Joselontxos txaranga Tejerian (Agreda eta Ilargi tabernak).

**19:00**

Olloki taldea Plaza Haundin.

**20:00**

Kontzertua: Andoni Ollokiegi, Plaza Haundin.

Kilkerband txaranga auzoan zehar.

**21:00**

Azken kalejira Porrontxa, Porrontxo eta Kilkerband txarangarekin, auzoan zehar.

**22:00**

Azken traka eta argazkia Plaza Berrin.

**22:30**

Gui Ar De Guorld, Kaktus tabernan.

# BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7  
Egia · Donostia  
[www.apal.eus](http://www.apal.eus)  
943 320400  
[info@apal.eus](mailto:info@apal.eus)

